

auto kontsumoaren xehetasuna



DF2 KASUA ETXEKOA – KONTSUMO HANDIA FOTOVOLTAIKOA – IV. GUNEA – METAKETARIK GABE

Etxebizitza, bost kidekoa, urtean 7.000 kWh-ko kontsumoa duena. Ekipamendua honako hauek osatzen dute: argiak eta etxebizitza batean ohikoak diren etxetresna elektrikoak. Kasu honetan, Espainiako etxebizitza-ereduaren eskari elektronikoa hartzen da profil gisa, egunean zehar banatutako kontsumo aldakorrekin eta astegunetarako eta asteburuetarako desberdinduta.

Horniduraren datuak

Herria	Gandía
Probintzia	Valentzia
Eremu klimatikoa (EKT-Eraikintzaren Kode Teknikoaren arabera)	IV
Sarbide-saria	2.0 A
Kontratuko potentzia	6,9 kW
Urteko kontsumoa	7.000 kWh/urte



> Faktura elektrikoa hornidurarako (hasierako egoera, autokontsumo-instalaziorik gabe)

Hornidurari aplikatutako prezioak (BEZa barne eta, hala badagokio, zerga elektrikoa ere bai)

A	Energia-terminoa	Unitatearen prezioa (batez beste urtean) ··· 0,142201 €/kWh Zenbatekoa ··········· 995 €/urte 7.000 kWh/urte · 0,142201 €/kWh
B	Potentzia-terminoa	Unitatearen prezioa ········· 53,473506 (€/kW · urte) Zenbatekoa ··········· 369 €/urte 6,9 kW · 53,473506 €/kW · urte
C	Neurtzeko ekipoen alokairua	Zenbatekoa ··········· 12 €/urte

Faktura elektrikoaren zenbatekoa (A+B+C) **1.376 €/urte**

Unitatearen energia-kostua (kontzeptu eta zerga guztiak bilduta) **0,197 €/kWh**


> Proposatutako autokontsumo-instalazioaren ezaugarriak

Teknologia ···········	Eguzki-teknologia fotovoltaikoa
Instalazioaren modalitatea (900/2015 Errege Dekretuaren arabera) ·········	1. mota
Metatze-sistema ·········	Ez du
Potentzia-pikoa (moduluena) ·········	1,6 kWp
Modulu kopurua (unitateko potentzia, 200 Wp) ·········	8
Moduluen azalera (ratioa 7 m ² /kWp) ·········	11,2 m²
Beharrezko azalera (estalki horizontalaren gainean) ·········	24 m²
Urteko eguzki-erradiazioa (gainazal horizontala) ·········	1.800 kWh/m² · urte
Moduluen inklinazio-angelua ·········	35 °
Dimentsioen irizpidea ·········	<i>Inbertsioa berreskuratzeko denbora minimizatzea</i>
Ekoiztutako energia ·········	2.439 kWh/urte
Autokontsumitutako energia ·········	2.410 kWh/urte
Sarera isuritako energia ·········	29 kWh/urte
Eskariaren urteko estaldura ·········	% 34
Energia autokontsumituaren ehunekoa ·········	% 98,8
Bizitza baliagarria ·········	25 urte




Eguneko batez besteko funtzionamendua (laneguna)


URTARRILA



ABUZTUA




Hileko funtzionamendua




> Konexio-eskemak

Instalazioaren blokeen diagrama • 1. mota



Fluxu energetikoen diagrama



Emaitza ekonomikoak autokontsumoko instalazioarekin

(BEZa eta zerga elektrikoak barne)

Hasierako faktura elektrikoaren zenbatekoa (autokontsumo-instalaziorik gabe)	1.376 €/urte
Aurrezpen ekonomikoa (gordina) autokontsumoko instalazioarekin	343 €/urte
<i>$P_i = 2.410 \text{ kWh/urte} \cdot 0,142201 \text{ €/kWh} = 343 \text{ €/urte}$</i>	
Karguak autokontsumoagatik	0 €/urte
<i>Kargu finkoa: 0 €/urte (kontratututako potentzia handitu gabe)</i>	
<i>Kargua autokontsumitutako energiagatik: 0 €/urte (ordainketa salbuetsia aldi batean)</i>	
Amaierako faktura elektrikoaren zenbatekoa (autokontsumo-instalazioarekin)	1.033 €/urte
<i>Zenbatekoa = 1.376 €/urte - 343 €/urte + 0 €/urte = 1.033 €/urte</i>	
Sarera isuritako energiaren salmentaren fakturaren zenbatekoa	0 €/urte
<i>Zenbatekoa = 29 kWh/urte · 0 €/kWh = 0 €/urte (1. mota, sarera isurtzeagatik ordainsaririk gabe)</i>	
Sarera isuritako energiarekin lotutako kostuak	0 €/urte
<i>Sarbide-saria, ekoizleak: 0 €/urte (1. mota, ordainketa salbuetsia, ekoizle ez izateagatik)</i>	
<i>Energia elektrikoak ekoizteko balioaren gaineko zerga: % 7 · 0 €/urte = 0 €/urte</i>	
Autokontsumoko instalazioaren inbertsioa (BEZa barne)	3.485 €
Autokontsumoko instalazioaren mantentze-kostua	35 €/urte
Autokontsumoko instalazioaren emaitza ekonomikoa (garbia)	308 €/urte
<i>Emaitza = 343 €/urte - 35 €/urte = 308 €/urte</i>	
Autokontsumoko instalazioa berreskuratzeko denbora sinplea (EDS)	11,3 urte
<i>EDS = 3.485 € / 308 €/urte = 11,3 urte</i>	
Unitatearen kostu energetikoa (autokontsumoko instalazioarekin)	0,153 €/kWh
<i>Unitatearen kostua = (1.376 €/urte - 308 €/urte) / 7.000 kWh/urte = 0,153 €/kWh</i>	
<i>(Kontzeptu eta zerga guztiak eta mantentze-lanak barne)</i>	

Oharrak:

- Tarifa elektrikoetarako, dokumentua argitaratu den egunean indarrean dauden kostu arautuak aplikatu dira.
- Honako hauek hartu dira kontuan: bidesariak, karguak, zergak, energia elektrikoaren erosteko kostuak eta instalazioaren bitzita baliagarriko energia ekoizteko baldintza konstanteak, ekipoen errendimendu-jaitzierak aintzat hartu gabe.
- Energiaren prezioak etorkizunean goranzko eboluzioa izango balu, inbertsioa berreskuratzeko denbora urtebete eta bi urte bitartean murriztuko litzateke, eta alderantziz.
- Autokontsumoko kargu iragankorrak 900/2015 Errege Dekretuaren arabera kalkulatu dira, ETU/1976/2016 Aginduaren bidez erantsitako eguneratzearekin.
- 1.800 €/kWp-ko batez besteko inbertsio-ratioa aurreikusi da (BEZa kanpo) instalazio fotovoltaikoetarako (metatze-bateriarik gabe) proposatutako potentzia-tartean. Ratio horretan ez dira kontuan hartzen instalazio elektriko aldaketa handiak, ezta instalazioarekin lotutako obra zibilak eragindako aparteko kosturik ere.
- Ez da kontuan hartu autokontsumoko instalazioak izan dezakeen laguntza edo zerga-pizgarririk; halakorik izanez gero, kalkulaturako berreskuratzeko-denbora murriztu egingo litzateke.
- BEZa egoteko irizpidea: oro har, kalkulatuak BEZa barne dela egiten dira azken erabiltzaileen kasuan (etxeak, administrazioa eta abar), eta BEZa kanpo izango da jarduera ekonomikoak egiten dituzten erabiltzaileen kasuan (enpresak).
- Edizio-data: 2017ko martxoa.

